2011	248	245	251	244	213
2012	243	247	246	246	212
2013	246	244	250	242	212
25-29 URTE					
2007	389	385	394	383	341
2008	408	404	414	402	355
2009	419	419	425	417	371
2010	418	413	423	411	360
2011	404	400	410	398	354
2012	402	398	408	396	347
2013	408	404	414	401	347
30-34 URTE					
2007	452	447	458	444	393
2008	476	471	483	469	412
2009	489	493	496	490	428
2010	494	488	501	486	428
2011	484	478	490	476	420
2012	485	480	492	478	418
2013	492	487	499	485	418

9. MERKATUKO ALOKAIKU-ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZA ALOKATZEKO GEHIENEN ERRENTA ONARGARRIAREN ARTEKO ALDEA

DEFINIZIOA:

Zenbat euroko aldea dagoen alokairuko etxebizitzaren batez besteko alokairu-errentaren eta 18-34 urte bitarteko gazte batek, alokairua bere hileko soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe ordaintzeko, etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren artean.

Merkatuko errentaren eta 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldearen bilakaera EAE eta Espainian (euro hileko)



Adierazlea egiteko erabilitako datuen iturria:

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitzei buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

**MERKATUKO ERRENTAREN ETA GAZTE BATEK ETXEBIZITZA ALOKATZEKO
GEHIENEN ERRENTA ONARGARRIAREN ARTEKO ALDEA**
EAE, EAEko lurralde historikoetan eta Espainian (euro hileko).
2007-2013 aldiko bilakaera


URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
GUZTIRA 18-34 URTE					
2007	504	527	511	496	414
2008	551	481	663	557	373
2009	436	402	495	448	316
2010	482	393	560	491	271
2011	458	397	550	451	241
2012	424	363	441	440	227
2013	405	328	396	426	206
EMAKUMEAK 18-34 URTE					
2007	549	571	556	535	451
2008	595	525	707	600	403
2009	475	441	535	487	345
2010	523	433	601	532	302
2011	512	451	604	504	271
2012	472	410	490	488	261
2013	446	368	437	465	233
GIZONAK 18-34 URTE					
2007	460	479	465	448	388
2008	509	440	625	516	342
2009	397	363	456	410	284
2010	439	351	526	449	243
2011	411	351	502	405	204
2012	378	317	395	395	188
2013	366	289	355	386	169
18-24 URTE					
2007	588	602	595	570	492
2008	657	586	770	661	457
2009	569	534	631	580	419
2010	606	511	685	608	374
2011	648	585	742	638	396
2012	613	543	634	620	373
2013	579	500	572	596	343
25-29 URTE					
2007	501	524	507	493	417
2008	561	491	673	567	378
2009	456	417	516	464	320
2010	504	415	582	513	288
2011	492	431	584	484	254
2012	454	393	472	470	237
2013	417	340	408	437	207
30-34 URTE					
2007	439	462	444	431	366
2008	493	424	604	500	322
2009	386	344	445	391	262
2010	428	339	504	438	220
2011	413	352	504	406	189
2012	371	310	388	388	166
2013	333	257	322	354	136

10. ETXEBIZITZA LIBREA ALOKATZEKO GEHIENEN AZALERA ONARGARRIA

DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, alokairu-errenta ordaintzeko bere hileko soldataren % 30 baino gehiago erabili gabe, aloka lezakeen gehieneko azalera eraikia, metro karratuetan.

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek etxebizitza alokatzeko gehieneko azalera onargarriaren bilakaera EAEn eta Espainian (m²-tan)



Adierazlea egiteko erabilitako datuen iturria:

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitza buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

ETXEBIZITZA LIBRE BAT ALOKATZEKO GEHIENEN AZALERA ONARGARRIA
 EAEn, EAEko lurralde historikoetan eta Espainian (m²-tan).
 2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
GUZTIRA 18-34 URTE					
2007	32,2	32,0	32,0	32,2	35,6
2008	32,1	35,2	28,8	31,6	38,4
2009	37,4	39,6	34,9	36,5	42,4
2010	35,5	40,0	32,7	34,8	45,5
2011	36,4	39,8	32,9	36,3	47,2
2012	37,6	41,3	36,7	36,5	47,9
2013	37,9	42,6	38,2	36,6	49,1
EMAKUMEAK 18-34 URTE					
2007	28,5	28,3	28,3	28,9	31,7
2008	28,8	31,6	25,7	28,3	35,3
2009	34,0	36,1	31,8	33,2	39,2
2010	32,2	36,3	29,6	31,5	41,8
2011	31,9	34,9	28,9	31,8	43,4
2012	33,4	36,7	32,6	32,5	43,3
2013	34,2	38,5	34,5	33,1	45,4
GIZONAK 18-34 URTE					
2007	36,0	36,1	35,7	36,3	38,2
2008	35,3	38,8	31,3	34,7	41,8
2009	40,7	43,1	38,0	39,7	46,1
2010	39,0	44,0	35,1	38,2	49,0
2011	40,3	44,0	36,5	40,2	52,0
2012	41,6	45,7	40,6	40,4	53,0
2013	41,5	46,6	41,8	40,1	54,4
18-24 URTE					
2007	25,3	25,7	25,0	25,9	27,5
2008	24,0	26,3	21,5	23,6	29,4
2009	26,0	27,6	24,3	25,4	30,7
2010	25,5	29,2	23,5	25,4	33,1
2011	20,6	22,5	18,7	20,6	27,4
2012	21,1	23,9	20,6	21,1	28,3
2013	22,2	25,0	22,4	21,5	29,9
25-29 URTE					
2007	32,5	32,3	32,2	32,5	35,2
2008	31,4	34,4	28,1	30,8	37,9
2009	35,7	38,2	33,3	35,2	42,0
2010	33,7	38,1	31,1	33,1	43,5
2011	33,6	36,7	30,4	33,5	45,6
2012	35,0	38,4	34,2	34,0	46,5
2013	36,8	41,4	37,1	35,6	49,0
30-34 URTE					
2007	37,8	37,5	37,4	37,7	40,5
2008	36,6	40,1	32,8	35,9	43,9
2009	41,6	44,9	38,8	41,3	48,5
2010	39,9	45,0	36,7	39,1	51,6
2011	40,2	43,9	36,4	40,1	54,0
2012	42,2	46,3	41,2	41,0	55,9
2013	44,4	49,9	44,8	42,9	59,0

EMAITZA ESANGURATSUENAK




EMAITZA ESANGURATSUENAK

Txosten honetan etxebizitza librea eskuratzeko kostuak Euskadin izandako bilakaera azaltzen da eta Estatuko batez bestekoarekin erkatzen. Eskuratzeko-kostua adierazteko 10 adierazle sintetiko erabili dira, zeinek erlazioan jartzen baitute, alde batetik, 18-34 urte bitarteko pertsonen hileko batez besteko soldata garbia, eta, bestetik, eskritura egin-dako etxebizitza libreen salneurria eta hipotekaren finantzazio-kostuak (jabetzan hartze-ko etxebizitzaren kasuan) edo merkatu libreko batez besteko alokairu-errenta (alokairuan hartzeko etxebizitza bada).

Bere kabuz etxebizitza bat erosita emantzipatu nahi duen **gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren % 62,8 bideratu beharko luke hipotekaren lehen hile-rokoa ordaintzera**. Etxebizitza Araban erosiz gero, % 54,2 bideratu beharko luke; Bizkaian, % 60; eta Gipuzkoan emantzipatu nahi izanez gero, ordea, % 70,5.

EAn etxebizitza eskuratzeko kostua Espainia osoko batez bestekoaren gainetik dago (% 50,7 2013an); nahiz eta azken urteotan txikitu, bien arteko aldea 10 puntutik gorakoa da oraindik ere.




Etxebizitza jabetzan hartzearen kostua handiagoa da emakumeentzat, gizonena baino baxuagoa izan ohi da-eta haien soldata, bai eta, noski, adin-talde gazteagoentzat ere. Hala, 25 urtetik beherakoek beren soldata garbiaren % 100 baino gehiago bideratu beharko lukete bakarka etxebizitza bat jabetzan hartzeko.

2007-2013 denboraldian, etxebizitza bat erosteko egin beharreko ahalegin ekonomikoa arindu da, nagusiki, salneurrien eta interes-tipoen beherakaden eraginez; izan ere, soldatak oso egonkor mantendu dira aldi horretan. Soldatak, ekonomiaren orain-tsuko bilakaerarekin ageriko kontraesanean, egonkor mantendu izanak zera ematen du aditzera, lanpostuen suntsiketak hein handiago batean kaltetu dituela egonkortasun gu-txiagoko lan-egoera duten eta, ondorioz, soldata baxuagoak dituzten kolektiboak. Enple-guaren beherakada sektore guztietan homogeneoa izan balitz, segur aski, soldaten esta-tistikak erosahaltenaren galera jasoko luke.


Nolanahi ere, eskuratzeko-kostua txikitu arren, ez da oraindik % 30eko atalasea lortu; hain zuzen, zorpetze aholkugarriaren gehieneko atalasetzat jotzen dena eta finantza-erakun-deek erabiltzen dutena erabakitzeko, beste faktore batzuen artean, hipoteka-mailegu bat

bideragarria ote den. Beraz, **gaur egungo finantzazio-baldintzetan bakarka eman-
tzipatu nahi duen gazte soldatadunek ez dute, oro har, etxebizitza librerik esku-
ratzerik.**


**Nabarmengarria da eraiki berriko edo bigarren eskuko pisu libre bat erostearen
arteko aldea.** Pisu berri bat erosteko, soldata garbiaren % 76,9 erabili beharko litzateke.
Hau da, bigarren eskuko pisu bat erosteko erabili beharrekoa baino 20 portzentaje-pun-
tu gehiago (% 57). Familia bakarreko etxebizitza (berria zein bigarren eskukoa) erosteko
egin beharreko gastua, bestalde, 18-34 urte bitarteko gazte baten batez besteko soldata-
ren % 92,4 suposatuko luke. Etxebizitzaren salneurrien azken urteotako beherakada naba-
riagoa izan da bigarren eskuko etxebizitzaren merkatuan.




Aintzat harturik gazteen batez besteko soldata, eta kalkulaturik eskuratze-kostua —hau da, hipotekaren lehen hilerokoaren zenbatekoa— ezin dela hileko soldata garbiaren % 30 baino gehiago izan, orduan, **etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarria 98.644 €-koa da.** Gizon gazte batek ordaindu ahalko lukeen 107.990 €-ren aldean, **emakume gazteek 89.182 €-rainoko pisu bat eskuratu lezakete** soilik.



Alderatuz gero, gazte batek % 30eko atalasea (98.644 €) gainditu gabe egin lezakeen **gehieneko inbertsioa** eta etxebizitza libreen benetako prezioa (206.609 €), jabetzen gara 100.000 €-tik gorako aldea dagoela EAEn; hain zuzen ere, 107.965 €-koa. Deigarriak dira lurraldeen arteko diferentziak: Araban, 78.602 €-ko aldea dago etxebizitza libreen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren artean; Bizkaian, 100.023 €-koa; eta Gipuzkoan, 130.996 €-koa, etxebizitza garestiagoa denez azken lurralde horretan.




Aurreko adierazletik, zuzenean, **etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria** lor daiteke. Oso adierazle esanguratsua da: 2013an, gazte soldatadun batek, bere hileroko soldata garbiaren % 30 hipotekaren lehen kuota ordaintzeko erabilita, 41,9 m²-ko etxebizitza bat erosi zezakeen gehienez. 2007an, 27,1 m²-koa zen gehieneko azalera onargarria.



Soldataren % 30 baino gehiago horretara bideratu gabe etxebizitza erosi ahal izateko, Euskadin, 2013an, gazte batek batez besteko soldataren bikoitza baino gehiago irabazi beharko zukeen (% 116 gehiago). Datu altua bada ere, **etxebizitza librea erosteko behar diren gutxieneko diru-sarreraren adierazlea** nabarmenki hobetu da 2007az geroztik, soldata garbia baino % 238 gehiago irabazi behar zenetik.


Bestalde, nahiz eta merkatu librean alokatzeak ez ekarri berekin arriskurik hipotekaren epe-luzeko konpromisoak sortutakoak bezalakorik, hautabide hori urrun dago bere kabuz emantzipatu nahi duen gaztearen eskura egotetik. Aintzat hartzen baditugu 18-34 urte bitarteko gazteen hileko batez besteko soldata eta Euskadiko etxebizitza libreen batez besteko alokairu errenta, 2013an, **alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostua** % 59koa da: hau da, gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren ehuneko hori bideratu beharko zukeen alokairu-errenta ordaintzera. Espainia osorik hartuz gero, esku-ratze-kostua % 47,8koa zen.

Aztertutako urteetan zehar etxea eskuratzeko modu bien arteko aldeak txikitu dira: 2007an, etxebizitza jabetzan hartzearen kostuak 29,7 portzentaje-puntutan gainditzen zuen etxebizitza alokairuan hartzearena, gaur egun, ordea, 3,8 puntuko aldea dago. Erosketa- eta alokairu-kostuak Araban parekatu dira gehien; izan ere, puntu erdiko aldea besterik ez da bien artean. Alde handiena, berriz, Gipuzkoan ikus daiteke, non 9,6 portzentaje-puntu garestiagoa baita etxebizitza erostea, alokatzea baino.




Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostuak 36 puntuko beherakada izan du 2007-2013 urteen artean; merkatu libreko etxebizitza bat alokatzeko kostua, aldiz, hamar puntu besterik ez da beheratu. Krisiaren eraginez, nabariki jaitsi dira salneurriak eta hipoteka-tipoak; alokairuen prezioak, ordea, ez dira hainbeste beheratu. Izan ere, gora egin du alokairuko pisuen eskariak, agidanez, kreditua eskuratzeko zailtasunak eta enpleguaren kolokatasunaren ondorioz hipoteka ezin ordaintzeko arriskua direla medio.

Hala, etxebizitza **alokatzeko gehieneko azalera** txikiagoa da etxebizitza erostekoa baino eta, alokairuen merkatu librean bakarka emantzipatu nahi izanez gero, gazte soldatadun batek 38 metro karratuko etxebizitza bat besterik ezin lezake ordaindu.



Gehieneko alokairu-errenta onargarria 420 €-koa da, hau da, alokairu bidez bakarka emantzipatu nahi duen gazte soldatadun batek 405 € gehiago beharko lituzke alokairuko etxebizitza libreen batez besteko preziora iritsi ahal izateko (825 € Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera).



Emakumeek eta gazteenek agertzen dituzte etxebizitza eskuratzeko kostu altuenak eta, hortaz, baxuagoa da haien gehieneko alokairu-errenta onargarria eta txikiagoa haien gehieneko alokairu-azalera. Azkenik, lurraldeen arteko aldeak ez dira, alokairuari dagokionez, erosketa-kostuenak bezain nabariak. Dena dela, kostu baxuagoa agertzen du Arabak oraingoan ere (% 53,7); jarraian, Bizkaia dago (% 57,9) eta, ondoren, Gipuzkoa (% 60,9).

AZKEN GOGOETAK



Etxebizitza librea eskuratzea gazteen hileko batez besteko soldata garbiaren % 30 baino hainbat ere handiagoa da

Txosten honetan jasotako informazioa oinarri, ondorioztatzen da etxebizitza librea, dela jabetzan, dela alokairuan, eskuratzeak 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun bati dakarkion kostua gazteen hileko batez besteko soldata garbiaren % 30 baino hainbat ere handiagoa dela; horixe izanik, izan ere, finantza-erakundeek berek hipoteka bat ematerakoan onargarritzat jotzen duten gehieneko zorpetze-muga. Are gehiago, % 40tik gorakoa ere bada: esparru europarrean, etxebizitza baldintza horietan eskuratzeak gehiegizko ahalegin ekonomikoa dakarrela eta, ondorioz, eskastasunera daramala jotzen da.

Lurralde historikoen arteko aldeak nabarmenak dira

Oso nabarmenak dira lurralde historikoen arteko aldeak. Etxebizitza librea, jabetzan zein alokairuan, eskuratze-ko kostuak Gipuzkoako lurraldean dira altuen. Ondoren, Bizkaia dago eta azkenik, Araba, kostu baxuenak agertzen dituena.

Euskadin eskuratze-kostuak handiagoak dira Estatuan baino

Estatuaren batez bestekoaren aldean, eskuratze-kostuak handiagoak dira Euskadin, bai jabetzari, eta baita alokairuari ere, dagokionez. Soldatak altuagoak izan arren, Euskadin etxebizitzaren salneurria beste autonomia-erki-degoetan baino garestiagoa denez, emantzipazio-kostuak ere altuagoak dira. Aldea nabarmenagoa da etxebizitzaren erosketen kasuan, baina agerikoa da alokairuko etxebizitzak eskuratzeko kostuetan, halaber.

Etxebizitza-emantzipazioaren kostua beherantz doa

Eskuratze-kostuen adierazleek bilakaera positiboa izan dute; izan ere, etxebizitza-emantzipazioaren kostuaren beheratze jarraitua erakusten dute. Beheratzea handiagoa izan da etxebizitza erosteko kostuan, alokatzekoan baino; nabariagoa ere Euskadin, Espainiako guztizkoaren aldean, erosketen kasuan, baina handiagoa Espainian alokairuen kasuan.

EAEko emantzipazio-tasak gora egin du

Etxebizitza librearen bilakaera positiboa izan arren, gehiengoaren ahalbidetatik kanpo dago oraindik. EAEko emantzipazio-tasek, alabaina, bilakaera positiboa agertu dute azken urteotan, gorabeherekin bada ere: 2007an % 40,9koa bazen, 2013an % 43,5koa². Nola azal daiteke hazkunde hori? Hasteko, gazte gehienak bikotekidearekin emantzipatzen dira (% 70,4)³ eta, beraz, kasu askotan errenta handiagoa dute eskuragarri. Horrez gain, beste faktore batek ere lagundu du krisialdian zehar gazteen emantzipazioa hobetzen edo mantentzen: hain zuzen, etxebizitza babestuak.

2. Emantzipazio-tasak guk geuk prestatu ditugu Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak erabiliz. Datuak argitalpen honetako I. Eranskinean kontsultatu daitezke.

3. Gazteen Euskal Behatokia, 2013.

**Etxebizitza babestuak
oso eragin onuragarria
izan du**

“Etxebizitzaren politikak ebaluatzeko 2012ko txostenak”
“aditzera ematen duenez, nahiz eta 2008an hasi zen higiezinaren krisiak testuinguru zaila eratu, Euskadin ekoizpen-erritmo jarraitua mantentzea lortu zen, hain zuzen, etxebizitza babestuaren aldeko apustu publikoa dela kausa, eta etxebizitza babestuen salerosketa egonkor mantendu zen 2007 eta 2012 urteen artean. Zalantzarik gabe, horri esker lortu du hainbat gaztek etxebizitza eskuratzea.

Hala, etxebizitza babestuek emantzipazioaren gain izandako eraginak argitzen du EAEko eta Estatuko batez bestekoaren arteko aldeak txikitu izana, harik eta emantzipazio-tasa antz-antzekoak izatera iritsi arte, nahiz eta etxebizitza librearen kostua baxuagoa izan Estatuaren gainontzekoan.

Euskadin, 2007-2013 urteen artean eskritura egindako pisuen guztizkoaren % 18,5 ziren pisu babestuak, Estatu osoan eskrituratutako pisuen guztizkoaren % 10,2ren aldean.

Lurraldeka aztertuz gero, ohartzen gara etxebizitza babestuak presentzia indartsua duela Araban (salerosketen guztizkoaren % 45), eta ahulagoa Gipuzkoan (% 14,3) eta Bizkaian (% 10,8).

Etxebizitza babestuaren garrantzi handiagoarekin bat etorritik, altuagoak dira gazteen emantzipazio-tasak Araban 2013an (% 46,8), Gipuzkoan (% 45,3) eta Bizkaian (% 41,5) baino.

Datu horiek ikusirik, argi dirudi etxebizitza-politika publikoak mantentzearen mendean dagoela gazteriak merkatu libreko eskuratze-kostuei —hau da, gehienen ahalbideetatik kanpo dagoen gastu bati— aurre egin behar ez izatea.

4. Etxebizitza-politikak ebaluatzeko txostena, 2012. Etxebizitzaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eskuragarri <https://euskadi.net/informacion/informe-de-evaluacion-de-politiccas-de-vivienda-2012/r41-ovad03/es/> helbidean [2014ko irailaren 25ean kontsultatua]

I. ERANSKINA

ADIERAZLEAK LORTZEKO ERABILITAKO DATUAK



1. 18-34 URTE BITARTEKO GAZTEEN HILEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GARBIA

EAEn eta EAeko lurralde historikoetan eta Espainian (euroak).
2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
GUZTIRA 18-34 URTE					
2007	1.286	1.272	1.303	1.265	1.150
2008	1.394	1.379	1.413	1.371	1.200
2009	1.466	1.450	1.486	1.442	1.247
2010	1.464	1.449	1.485	1.441	1.257
2011	1.461	1.445	1.481	1.437	1.224
2012	1.441	1.426	1.461	1.418	1.192
2013	1.400	1.385	1.419	1.378	1.161
EMAKUMEAK 18-34 URTE					
2007	1.138	1.125	1.153	1.134	1.025
2008	1.248	1.234	1.265	1.228	1.102
2009	1.334	1.320	1.353	1.313	1.151
2010	1.329	1.314	1.347	1.307	1.154
2011	1.281	1.267	1.298	1.260	1.126
2012	1.281	1.267	1.299	1.261	1.079
2013	1.266	1.252	1.283	1.245	1.072
GIZONAK 18-34 URTE					
2007	1.435	1.433	1.454	1.425	1.236
2008	1.533	1.517	1.540	1.509	1.305
2009	1.595	1.578	1.617	1.569	1.355
2010	1.608	1.590	1.597	1.582	1.353
2011	1.617	1.599	1.639	1.591	1.348
2012	1.595	1.578	1.617	1.569	1.320
2013	1.533	1.516	1.554	1.508	1.286
18-24 URTE					
2007	1.007	1.022	1.021	1.017	890
2008	1.041	1.030	1.056	1.025	919
2009	1.020	1.009	1.034	1.004	904
2010	1.053	1.057	1.067	1.052	914
2011	827	818	838	814	709
2012	809	824	820	820	706
2013	821	812	832	808	706
25-29 URTE					
2007	1.296	1.282	1.314	1.275	1.138
2008	1.361	1.347	1.380	1.339	1.183
2009	1.398	1.398	1.417	1.391	1.235
2010	1.392	1.377	1.411	1.370	1.201
2011	1.348	1.333	1.366	1.326	1.181
2012	1.341	1.326	1.359	1.319	1.157
2013	1.360	1.345	1.379	1.338	1.157
30-34 URTE					
2007	1.505	1.489	1.526	1.481	1.309
2008	1.588	1.570	1.609	1.562	1.372
2009	1.630	1.642	1.652	1.633	1.426
2010	1.646	1.628	1.669	1.619	1.427
2011	1.612	1.595	1.634	1.586	1.400
2012	1.618	1.601	1.640	1.592	1.393
2013	1.642	1.624	1.664	1.615	1.393

Iturria: guk geuk egina, Estatistika Institutu Nazionalaren Lan Kostuaren Hiruhileroko Inkestako, Soldaten Egiturari buruzko Inkestako eta Bizi-baldintzei buruzko Inkestako datuak erabiliz.

2. HIPOTEKEN INTERES-TIPOAK ETA AMORTIZAZIO-EPEAK

2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	Hipoteka-maileguen interes-tipoak	Etxebizitza erosteko kontrataturako hipoteka- kreditu berrien batez besteko iraunaldia (hilabeteetan)
2007	%5,24	336
2008	5,%86	321
2009	%3,44	292
2010	%2,77	301
2011	%3,38	297
2012	%3,42	279
2013	%3,35	267

Iturria: Espainiako Bankua eta Jabetzaren, Ondasun Higigarrien
eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa.

3. ETXEBIZITZA LIBREAREN BATEZ BESTEKO SALNEURRIA m²-KO

EAEn, EAEko lurralde historikoetan eta Espainian (euro/metro karratu eraikiko)

2007-2013 aldiko bilakaera

ETXEBIZITZA LIBREEN GUZTIZKOA (PISUAK ETA FAMILIA BAKARREKOAK)*					
URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	3.132	2.480	3.224	3.280	1.940
2008	3.008	2.365	3.103	3.192	1.916
2009	2.796	2.046	2.917	3.048	1.828
2010	2.896	1.949	3.010	3.253	1.786
2011	2.779	2.018	2.959	2.893	1.637
2012	2.532	2.014	2.584	2.738	1.417
2013	2.353	1.753	2.299	2.696	1.301

* Balioa zenbatesteko, pisu libreen batez besteko salneurriaren eta familia bakarreko etxebizitzaren guztizko arteko diferentzia, higiezin-kopuruaren arabera haztatua, hartu da oinarri.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

PISU LIBREEN GUZTIZKOA (BERRIAK ETA BIGARREN ESKUKOAK)					
URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	3.196	2.644	3.272	3.306	2.095
2008	3.089	2.601	3.125	3.266	2.068
2009	2.838	2.147	2.932	3.068	1.966
2010	2.942	2.013	3.043	3.287	1.925
2011	2.836	2.114	3.002	2.931	1.766
2012	2.572	2.073	2.624	2.758	1.495
2013	2.404	1.839	2.333	2.738	1.365

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

ERAIKI BERRIKO PISU LIBREAK					
URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba*	Bizkaia*	Gipuzkoa*	
2007	3.147	2.569	3.217	3.312	2.050
2008	3.085	2.713	3.064	3.307	2.079
2009	2.919	2.058	2.946	3.359	2.032
2010	2.866	1.888	2.976	3.707	1.988
2011	3.052	2.191	3.378	3.167	1.982
2012	2.843	2.383	2.833	3.113	1.741
2013	2.928	2.373	2.629	3.351	1.624

*Balioa zenbatesteko, pisuen batez besteko salneurriaren eta bigarren eskuko pisuen batez besteko salneurriaren arteko diferentzia, higiezin-kopuruaren arabera haztatua, hartu da oinarri.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

BIGARREN ESKUKO PISU LIBREAK

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	3.221	2.688	3.298	3.302	2.135
2008	3.093	2.488	3.168	3.228	2.053
2009	2.783	2.237	2.922	2.817	1.905
2010	2.978	2.167	3.068	3.101	1.889
2011	2.730	2.053	2.844	2.800	1.673
2012	2.431	1.812	2.524	2.541	1.407
2013	2.254	1.660	2.237	2.524	1.316

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZEN GUZTIZKOA (BERRIAK ETA BIGARREN ESKUKOAK)

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	2.084	1.662	2.263	2.496	1.403
2008	2.020	1.453	2.693	2.063	1.359
2009	1.977	1.379	2.521	2.327	1.281
2010	1.764	1.134	2.140	1.960	1.234
2011	1.621	1.153	2.033	1.620	1.147
2012	1.706	1.459	1.694	2.062	1.088
2013	1.405	938	1.630	1.619	1.045

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

4. ETXEBIZITZA LIBREAREN BATEZ BESTEKO SALNEURRI OSOA

EAEEn eta EAeko lurralde historikoetan eta Espainian (euroak).

2007-2013 aldiko bilakaera

ETXEBIZITZA LIBREEN GUZTIZKOA (PISUAK ETA FAMILIA BAKARREKOAK)*

URTEAK	PAÍS VASCO				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	279.702	262.041	276.411	292.479	190.698
2008	266.429	238.225	266.683	280.464	189.655
2009	247.077	205.915	248.459	267.851	184.373
2010	248.686	184.233	253.342	275.832	183.146
2011	250.341	205.285	256.367	262.178	168.554
2012	223.416	204.526	222.926	233.719	149.949
2013	206.609	176.170	200.020	228.052	138.326

*Balioa zenbatesteko, pisu libreen batez besteko salneurriaren eta familia bakarreko etxebizitzaren salneurrien arteko diferentzia, higiezin-kopuruaren arabera haztatua, hartu da oinarri.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

PISU LIBREEN GUZTIZKOA (BERRIAK ETA BIGARREN ESKUKOAK)

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	270.394	246.176	268.696	281.622	180.615
2008	260.415	239.943	257.767	273.116	180.525
2009	239.267	195.006	238.566	261.568	175.882
2010	242.537	176.232	246.044	270.799	175.266
2011	243.468	195.274	249.521	255.202	160.500
2012	216.761	194.186	217.489	226.012	140.122
2013	201.413	165.992	194.545	224.208	126.925

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

ERAIKI BERRIKO PISU LIBREAK

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba*	Bizkaia*	Gipuzkoa*	
2007	299.163	255.444	289.704	307.016	182.727
2008	277.793	256.050	271.972	290.365	183.141
2009	258.277	184.441	250.570	296.124	183.206
2010	249.233	163.540	258.631	315.054	182.214
2011	288.443	215.069	294.116	301.632	180.210
2012	256.994	232.574	249.850	260.890	167.022
2013	252.751	214.037	225.139	279.054	157.600

* Balioa zenbatesteko, pisuen batez besteko salneurriaren eta bigarren eskuko pisuen batez besteko salneurriaren arteko diferentzia, higiezin-kopuruaren arabera haztatua, hartu da oinarri.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

BIGARREN ESKUKO PISU LIBREAK

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	258.332	240.709	258.951	263.633	178.847
2008	247.630	223.743	247.503	257.148	176.962
2009	227.255	205.656	229.867	231.751	169.145
2010	239.607	191.799	241.441	251.296	171.332
2011	224.216	179.302	230.749	229.432	151.943
2012	197.883	162.072	202.082	204.666	130.781
2013	187.303	149.920	184.630	205.074	121.443

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZEN GUZTIZKOA (BERRIAK ETA BIGARREN ESKUKOAK)

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	431.320	341.235	430.263	616.628	225.616
2008	339.535	231.550	438.529	392.818	222.910
2009	399.010	277.439	497.388	495.005	217.866
2010	401.698	286.310	445.816	468.444	214.229
2011	389.737	294.736	403.883	499.059	199.110
2012	361.687	303.437	344.408	491.847	191.196
2013	303.896	273.336	308.020	325.633	183.770

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia

5. ETXEBIZITZA LIBREAREN BATEZ BESTEKO ALOKAIRU-ERRENTA


EAEN ETA EAEKO LURRALDE HISTORIKOETAN ETA ESPAINIAN (EUROTAN).
2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
2007	890	909	901	875	759
2008	969	895	1087	969	733
2009	875	837	941	881	690
2010	922	828	1005	924	649
2011	896	831	994	882	608
2012	856	790	880	866	584
2013	825	744	822	839	554

Iturria: Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, eta guk geuk egina Fotocasa.es higiezin atariko *Espainiako alokairuko etxebizitzaren txosten*-eko datuak erabiliz.

II.ERANSKINA

TESTUINGURUKO BESTE DATU BATZUK



1.EMANTZIPAZIO-TASAK

EAEn eta EAeko lurralde historikoetan eta Espainian
2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	EAE				ESPAINIA
	GUZTIRA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
GUZTIRA 18-34 URTE					
2007	%40,9	%37,6	%40,8	%42,4	%44,4
2008	%41,2	%35,7	%40,3	%45,2	%44,5
2009	%42,0	%36,4	%42,4	%44,1	%45,9
2010	%43,7	%48,3	%42,6	%43,2	%45,8
2011	%45,3	%45,9	%44,6	%46,3	%45,5
2012	%44,4	%43,5	%43,5	%46,3	%44,2
2013	%43,5	%46,8	%41,5	%45,3	%43,7
EMAKUMEAK 18-34 URTE					
2007	%44,5	%38,6	%44,1	%38,2	%49,3
2008	%44,4	%41,4	%43,4	%35,1	%48,6
2009	%47,1	%43,2	%46,6	%35,2	%50,6
2010	%49,1	%54,0	%48,1	%33,2	%50,7
2011	%51,0	%52,5	%50,4	%32,9	%51,1
2012	%49,0	%48,2	%48,4	%31,1	%49,3
2013	%46,7	%51,2	%44,0	%29,2	%49,1
GIZONAK 18-34 URTE					
2007	%37,5	%36,7	%37,8	%37,4	%39,8
2008	%38,1	%30,4	%37,4	%42,8	%40,7
2009	%37,2	%30,1	%38,4	%38,5	%41,4
2010	%38,5	%42,7	%37,6	%38,0	%41,0
2011	%39,9	%39,5	%39,0	%41,6	%40,1
2012	%40,0	%39,0	%38,8	%42,4	%39,3
2013	%40,3	%42,7	%39,1	%41,3	%38,4
18-24 URTE*					
2007	%8,2	—	—	—	%12,6
2008	%8,6	—	—	—	%11,4
2009	%9,5	—	—	—	%11,7
2010	%9,0	—	—	—	%10,9
2011	%9,4	—	—	—	%10,0
2012	%9,4	—	—	—	%9,7
2013	%7,0	—	—	—	%9,1
25-29 URTE*					
2007	%36,0	—	—	—	%45,3
2008	%37,6	—	—	—	%45,8
2009	%39,0	—	—	—	%46,9
2010	%43,0	—	—	—	%46,5
2011	%46,2	—	—	—	%46,9
2012	%44,3	—	—	—	%44,7
2013	%43,5	—	—	—	%45,3
30-34 URTE*					
2007	%72,0	—	—	—	%73,3
2008	%70,4	—	—	—	%73,4
2009	%69,7	—	—	—	%75,1
2010	%70,9	—	—	—	%75,6
2011	%72,9	—	—	—	%75,6
2012	%72,5	—	—	—	%74,6
2013	%74,2	—	—	—	%74,2

* Laginaren tamainak ez du aukerarik ematen lurralde historikoaren eta sexuaren aldaiekin guruztabulatzeko

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

2. NOTARIO AURREAN EGINDAKO SALEROSKETA-ESKRITURAK: ETXEBIZITZA LIBREAK ETA BABESTUAK

EAEn eta EAEko lurralde historikoetan eta Espainian.
2007-2013 aldiko bilakaera

URTEAK	Eskritura egindako etxebizitzak, guztira*	Pisuak guztira	Pisu libreak	Pisu babestuak	Pisu babestuen %a /pisuak guztira	EAEko pisu babestu guztiekiko %a
EAE						
2007	27.182	25.833	21.975	3.858	14,9	100,0
2008	21.382	20.043	16.274	3.769	18,8	100,0
2009	18.285	17.551	14.279	3.272	18,6	100,0
2010	24.019	23.248	19.186	4.062	17,5	100,0
2011	18.793	18.103	13.995	4.108	22,7	100,0
2012	15.398	14.854	11.302	3.552	23,9	100,0
2013	10.948	10.466	9.026	1.440	13,8	100,0
2007-2013	136.007	130.098	106.037	24.061	18,5	100,0
Araba						
2007	4.678	4.184	2.466	1.718	41,1	44,5
2008	4.124	3.591	2.070	1.521	42,4	40,4
2009	3.897	3.595	1.980	1.615	44,9	49,4
2010	5.722	5.504	2.781	2.723	49,5	67,0
2011	3.509	3.308	1.796	1.512	45,7	36,8
2012	3.485	3.317	1.607	1.710	51,6	48,1
2013	1.747	1.630	1.117	513	31,5	35,6
2007-2013	27.162	25.129	13.817	11.312	45,0	47,0
Bizkaia						
2007	14.182	13.575	12.105	1.470	10,8	38,1
2008	10.785	10.313	9.097	1.216	11,8	32,3
2009	8.725	8.423	7.599	824	9,8	25,2
2010	11.883	11.483	10.550	933	8,1	23,0
2011	9.139	8.784	7.649	1.135	12,9	27,6
2012	7.023	6.763	5.810	953	14,1	26,8
2013	5.516	5.272	4.813	459	8,7	31,9
2007-2013	67.253	64.613	57.623	6.990	10,8	29,1
Gipuzkoa						
2007	8.322	8.074	7.404	670	8,3	17,4
2008	6.473	6.139	5.107	1.032	16,8	27,4
2009	5.663	5.533	4.700	833	15,1	25,5
2010	6.414	6.261	5.855	406	6,5	10,0
2011	6.145	6.011	4.550	1.461	24,3	35,6
2012	4.890	4.774	3.885	889	18,6	25,0
2013	3.686	3.564	3.097	467	13,1	32,4
2007-2013	41.593	40.356	34.598	5.758	14,3	23,9
ESPAINIA						
2007	853.568	675.187	617.760	57.427	8,5	—
2008	564.838	453.734	404.652	49.082	10,8	—
2009	463.800	379.128	334.007	45.121	11,9	—
2010	497.800	405.842	362.750	43.092	10,6	—
2011	356.666	290.112	252.491	37.621	13,0	—
2012	370.005	305.426	271.036	34.390	11,3	—
2013	303.340	245.283	231.410	13.873	5,7	—
2007-2013	3.410.017	2.754.712	2.474.106	280.606	10,2	—

*Eskritura egindako salerosketen guztizkoak barne hartzen ditu bai pisuak eta bai familia bakarreko etxebizitzak. Azkenotan ezin da etxebizitza libre eta babestuen artean bereizi, beraz, etxebizitza babestuen ehunekoa kalkulatzeko, eskritura egindako pisuen kopurua hartu da oinarri.

III.ERANSKINA

METODOLOGIA-OHARRAK



Azterlanaren gorputza, nagusiki, Euskadiko gazteek etxebizitzaren merkatura sartzeko dituzten ahalbide ekonomikoen azkenaldiko bilakaerari buruzko adierazleak eta EAEko eta Espainiako adierazleen arteko eraketak osatzen dute. Baina, aurretik nabarmendu bezala, beharrezkoa da aurretiazko metodologia-lan bat gauzatzea: iturri desberdinak uztartu behar dira neurrirako esplorazioak eginez, teoria- eta metodologia-arloko zenbait erabaki hartuz, horrela, adierazleak finkatzeko datuak lortzeko.

18-34 urte bitarteko gazteen hileko batez besteko soldata garbiari buruzko datua, funtsean, zenbatespen bat da, ezin baita datu hori zuzenean lortu inolako estatistika-eragiketa ofizialetik. Etxebizitza hipoteka bidez erostearen kostuak zenbatesteko, honako datu hauek uztartu dira: Espainiako Bankuarenak, interes-tipoei buruzkoak; Erregistratzaileen Elkartuarenak, hipoteken batez besteko iraupenari buruzkoak; eta notario aurrean erregistratutako etxebizitza-saleroketetan jasotako prezioak.

Jarraian erabilitako iturriak eta datuak zehaztuko dira.

Notariotzaren Kontseilu Nagusia

DATUA: notario aurrean erregistratutako salerosketetan jasotako prezioa.

Oharrak: notarioko prezioa ez dator bat eskaintza-prezioarekin, tasazio-prezioarekin edo eragiketaren azken prezioarekin (balitekeelako ezer beltzean ordaindu izana); bai, aitzitik, zerga-ondorioetarako aitortzen den prezioarekin. Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistikak zuzenean ematen ditu honako datu hauek: prezioa guztira, prezioa metro karratuko eta etxebizitzaren batez besteko azalera eraikia, etxebizitza libreen, babestuen, pisuen eta familia bakarreko etxebizitzaren artean bereizirik.

Zenbaitetan, zuzenean ematen ez diren tipologia batzuen batez besteko balioa zenbatetsi da Euskadira eta lurralde historiko bakoitzerako, batez bestekoen arteko diferentziatik abiatuta.

DATUA: eskritura egindako etxebizitza-saleroketen kopurua, bereizirik pisu libreak eta babestuak.

Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta – Etxebizitzaren Euskal Behatokia

DATUA: alokairuko etxebizitza libreen hileko batez besteko errenta Euskadin.

Oharrak: etxebizitzak eskaintzen dituzten sustatzaileei (bost etxebizitzatik gorako sustapenak) eta higiezinaren jabetza-agenteei egindako inkesten emaitzak.

Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena – Fotocasa.es

DATUA: alokairuko etxebizitza libreen hileko batez besteko errenta Espainian.

Oharrak: partikularrek nahiz enpresek Fotocasa.es atarian argitaratutako bigarren eskuko etxeen eskaintza-prezioa. Bazter utzi dira apartamentuak, duplexak,

loftak eta familia bakarreko etxebizitzak. Txostenak batez besteko alokairu-errenta metro karratuko ematen du soilik. Hileko ordaindu beharreko euro-kopuru osoa lortzeko, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko Erroldan alokairuzko ohi-ko etxebizitzetarako jasotako azalera aplikatu da (78,23 metro Espainia osorako).

Espainiako Bankua

DATUA: etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko tipoak.

Oharrak: hileko balio guztien urteko batez bestekoa erabili da.

Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Elkargoa

DATUA: etxebizitzaren gainean kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraualdia, Higiezinaren Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratua.

Oharrak: oraindik ez denez 2013ko urtekaria argitaratu, Higiezinaren Erregistro Estatistikaren hiruhilabetekariaren 2013ko lau zenbakien batez bestekoa erabili da urte horretarako.

Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE) - Estatistika Institutu Nazionala (EIN)

DATUA: soldata-kostua, guztira.

Oharrak: soldata-kostuak barne hartzen ditu inoren kontura egindako lanagatik langileek dirutan eta jenerotan jasotzen dituzten hartzeko ekonomiko guztiak, bai benetan egindako lana ordaintzeko direnean, edozein dela ere ordainketa-modua, bai lanekotzat zenbatzen diren atsedenaldiak ordaintzeko direnean ere. Barne sartu dira, hortaz, aparteko ordainsariak eta balizko gehigarriak ere, eta lau hiruhilekoen batez bestekoa kalkulatu da.

LKHEak ez du probintzien daturik eskaintzen. Lurraldearen arabera soldata-diferentziak 2010eko Soldata Egiturari buruzko Inkestatik lortu dira (ikus hurrengo idazpurua).

Soldaten Egiturari buruzko Inkesta (SEI) – Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

DATUA: soldata-kostua, guztira

Oharrak: SEIak aukera ematen du adinaren eta sexuaren arabera xehatzeko LKHEko batez besteko soldata. SEIa lau urtez behingo inkesta oso batek (azkenekoa 2010ekoa) eta tarteko urteei dagozkien urteroko inkestek osatzen dute, zeinek zenbatespenak egiten baitituzte, Gizarte Segurantzako Afiliazio Fitxategi

Nagusia, PFEZaren 190 Ereduko aitorpenak eta Lan Kostuei buruzko Hiruhileroko Estatistika oinarri harturik. Urteko soldata gordinen adinaren eta sexuaren arabera dauden diferentziak, SEIkoak, LKHEko soldata-kostuaren guztizkoari aplikatzen zaizkio.

Oraindik ez dagoenez eskuragarri 2013ko argitalpena, 2012ko balio berak erabili dira.

Autonomia-mailan, EINek 25 urtetik beherakoen eta 25-34 urte bitartekoekin adin-taldeetarako besterik ez ditu xehatzen datuak (estatistikoki esanguratsuak direnean). Kalkulatzeko Euskadin eta hiru lurralde historikoetan 18-24 urte-arte-ko, 25-29 urteko eta 30-34 urteko kolektiboak dagozkien balioak, Espainia oso-rako ezarritako parametro berak hartu dira.

18-34 urte bitarteko gazteen guztizkoaren batez besteko soldata kalkulatzeko, hiru adin-tarteetan (18-24 urte, 25-29 urte eta 30-34 urte) batez besteko haztatua egin da, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera adin-tarte bakoitzean dagoen soldatadun-kopurua abiltz.

Bizi-baldintzen Inkesta (EU-SILC) – Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

DATUA: soldata gordinen soldata garbi bihurtzeko ereduak.

Oharrak: EU-SILC Europar Batasun osoan egiten den inkesta bat da, zeinak biztanleriaren bizi-baldintzak aztertzen baititu, maila generikoan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, lana, diru-sarrerak, familia-harremanak...).

Inkestaren ataletako batean, "soldatadunen errenta monetario edo kuasimonetario garbia eta gordinen" jasotzen da, beti elkarriketaren aurreko urteari dagokiona.

Errenta monetario edo kuasimonetarioa LKHEko soldata-kostuaren kontzeptuaren antzekoa da oso: enplegu-eremuak soldatapekoen ordaindu beharreko sarien aldagai monetarioari egiten dio erreferentzia. Barne hartzen du soldatapekoak (edo enplegatzaileak, haren izenean) gizarte-aseguruen sistemei nahiz agintaritzak fiskalei ordaindu beharreko gizarte-kotizazio eta errenta-gaineko zerga guztien balioa⁵. EU-SILC inkestaren argitalpen bakoitzean (2007-2013), errenta gordinen eta garbiaren arteko aldea kalkulatu, eta errenta monetario garbiaren edo kuasimonetario gordinen deziletan banatzen da. Beraz, soldata gordinen soldata garbi bihurtzeko, soldata-tartearen arabera hamar bihurtzeko-koefizienteak daude eskuragarri.

Txosten honetan erabili den batez besteko azken soldata kalkulatzeko, SEIko adinaren eta sexuaren arabera diferentziak aplikatu zaizkio LKHEko soldata-kostuari, eta euro garbien zenbatekoa lortzeko bihurtzeko-koefizientea esleitu zaio; hain zuzen, EU-SILC inkestako errenta monetario edo kuasimonetarioaren dezi-laren arabera dagokiona.

5. Estatistika Institutu Nazionala. Bizi-baldintzen Inkesta. Metodologia. Madril: 2011, 46. or.


Eskuragarri http://www.ine.es/daco/daco42/condivi/ecv_metodo.pdf helbidean [2014ko abuztuaren 15ean kontsultatua].

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) – Estatistika Institutu Nazionala (EIN)

DATUA: 18-34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak.

Oharrak: emantzipatutzat jo dira inkestan «erreferentziazko pertsona», «erreferentziazko pertsonaren ezkontide edo bikotekide» eta «erreferentziazko pertsonarekin ahaidetasunik gabeko pertsona» gisa jasotakoak. Erabilitako BAI edizioa EINEk 2014an argitaratutakoa, 2002tik 2013rako aldian argitaratutako BAI zenbakien berrikuspena suposatu zuena, izan da.

EAEko lurralde historikoetarako, erkidego osoari dagokion “ahaidetasunik gabeko pertsona” proportzioa erabili da.



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

www.gaztebehatokia.euskadi.eus



Diseinu eta maketazioa:
www.aranacomunicacion.com